



EmART 2.0 : 2020-2021ko deialdia martxan!

**EmART 2.0
DEIALDI ARTISTIKOA
EMAKUME SORTZAILEEI ZUZENDUTA**

OINARRIAK

Deialdi honen bidez **ARTgia Sorgune & Aretoak** Arabako emakume* artista eta sortzaileen lana indartu eta mahaigaineratu nahi du.

EmART 2.0 ikus-entzunezko arteen, bai idatzizko, eszeniko eta edozein izaerako arteen barne kokatzen da Araban bizi diren emakume sortzaileen jardura sustatzeko ekimena da, emakume artista Euskal Herriko eta arabako ekosistema kulturalaren erdigunean jartzeko xede nagusia duena.

EmART 2.0-n hirugarren deialdi hau, emakume arabar artista eta sortzaileei zuzendu ez ezik, emakume nagusiei ere luzatzen zaie.

EmART 2.0 sorkuntza artistikoaren, giza eraldaketa eta zabaltze kulturalaren testuinguruan, ekoizpena, erakusketak eta hedapen kulturala bultzatzearen helburuarekin, emakume arabar sortzaileentzat sorturiko deialdi publikoa da hain zuzen. Beraz, erronka nagusia Arabako emakume artistek beraien artelanak erakutsi, sortu eta dagokien ikusgaitasuna ematea da artista profesional gisa.

Deialdia eragile ezberdinen arteko elkarlanari esker da posible. Horrela, **Gazteizko Udalaren Kultura Saila, Kultur ACT elkarte**a eta **ARTgia** dira **EmART** deialdiaren sustatzaile.

**Emakume Etxearen definizioa hartu dugu*

TESTUINGURUA

«em» emakume deritzo «art» arte «2.0» proiektu gazte baten bertsio heldua

Proiektu honen jaiotza eta gauzatzearen desira Gasteizen urteroko deialdia izan duen aurreko proiektu baten du bere jatorria eta abiapuntua: **EmART**, Arabako emakume sortzaile gazteei zuzenduritako programa artistikoa. Plazaratzen dugun bigarren bertsio edo birplanteaketa hau, gure eguneroko bizitzan nabarmen nagusia duen gaiak eragin du: COVID 19-ak.

Hortaz, aurreko edizioaren oinarrietatik abiatuz, egungo **EmART 2.0** bertsioak, aurrera pauso bat ematen du deialdiaren helburua birbideratzen du.

Jatorrian bere proposamen artistikoa sortzaile gazteei zuzentzen bazien ere, 2020an Gasteizko emakumeei dei egiten die, ibilbide profesional luzea zein motza dutenei, beren karrera artistikoa garatzen edota obra kontsokratua izan dezaketenak, zein beraien lana, teknika eta emakume artista bezala duten papera ikustarazi nahi dutenei. Ez dago adin mugarik. **Kultur ACT** eta **ARTgia Sorgune & Aretoak** tokiko emakume sortzaile orori zabaltzen diote deialdia.

Proiektu hau, beraz, Arabako emakume sortzaileentzat sortu da bereziki, tokiko eta lurraldeko arte-sarean sendotzen laguntzeko eta/edo oraindik gozatu ez duten aintzatespena eta ikusgaitasuna emateko. Hala, ekimen honek arreta berezia jartzen dio, alde batetik, beraien ibilbide profesionalaren hasieran dauden emakume gazteei laguntza eta aholkularitza emateari; eta, bestetik, karrera kontsokratua duten emakumeei dagokienez, ez dago hainbeste aholkua ematera zuzenduta, baizik eta artista gazteenekin elkarrizketa bat sortzeko aukera ematera: hau da, esperientzia profesionalen eta bizi-esperientzien trukea sustatzera.

Deialdi honek sari bat eta beka bat emango dizkie hautatutako artistei beren lanaren ekoizpen gastuak ordaintzeko, eta, horrez gain, 2021eko lehen seihilekoan bakarkako erakusketa bat egiteko aukera emango die, martxo eta ekaina bitartean.

HELBURUA

Gasteizen sormen-jarduera garatzen duten emakume artisten jarduera profesionala babestea, arte eta bizitza mailako trukea sustatuz, sareak sortuz eta haien lana zabalduz.

Deialdiak emakume artistak izango ditu ardatz, edozein dela ere haien ibilbide profesionalaren garapena, eta ikusizko arteetan, arte eszenikoetan, soinu-koetan, literaturakoetan edo hauen edozein alderditan jardun direnak. Hautatutako emakumeek beraien ideiak garatzeko behar duten laguntza eta aholkularitza jasoko dute, aldi berean, hain zuzen, beraien arteko eta publikoarekiko harremana sustatze aldera.

Gainera, hautatutako artisten eta beste artista eta eragile kultural batzuen arteko elkartruke artistiko, kultural eta bizi-trukea sendotzera zuzendutako saioak koordinatuko dira. Horrela, beraien artean sinergiak sortzea eta belaunaldien arteko elkarrizketa sustatze

horretan, non helduek eta gazteek esperientzia teknikoak eta tresnak elkartrukatuko dituzten, aberastasun pertsonala eta profesionala elkarri ematea da erronka.

Azkenik, kultura-ekosisteman nolabaiteko eragina izatea da proposamena, hautatuak artearen munduarekin lotura handiagoa izan dezaten eta arte-sarean txertatzeko aukera izan dezaten. Horretarako, kulturako hainbat eragilerekin harreman estua sustatzea da helburua, hala nola unibertsitateekin, arte-gune eta arte-zentroekin, museo eta galeriekin, beste artista eta arte-ikasleekin besteak beste.

PARTE-HARTZAILEAK

Gasteizen (Araba) bizi, ikasi edo lan egiten duten emakume artistak eta sortzaileak.

Hautatutako eta saritutako parte-hartzaileei Gasteizen egindako egonaldiaren justifikazioa eskatu ahal izango zaie.

Aurkeztutako proiektuak banaka aurkeztu beharko dira, hau da, ezin izango da talde-lanik aurkeztu.

Parte-hartzaileak ezin izango dute ondoz ondoko urtetan saririk jaso.

OBREN KOPURUA ETA KALITATEA

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi proposamen aurkeztu ahal izango ditu deialdira.

Proposamen bakoitza **.pdf** formatuan aurkeztu beharko da, garatu nahi den proiektua idatziz zein grafikoki azaltzeko. Ikus-entzunezko proposamenei dagokienez, **.MP4** formatuan onartuko dira, proiektua azaltzen duen testu batekin batera (.pdf formatuan).

LANAK ENTREGATZEA

Posta elektronikoz, **artgiada@gmail.com** helbidean, Gaia: **EmART – (egilearen izen-abizenak)** adieraziz. Bidalitako posta elektronikoa edo erantsitako artxibo batean, deialdirako proposamenaz gain, eskatzailearen datu hauek ere agertu beharko dira:

- Datu pertsonalak: izen-abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta NANaren fotokopia.
- Adierazpena/Statement-a
- Curriculum artistikoa, proiektu garrantzitsuenekin.
- Portfolioa

Eskabidea euskaraz eta/edo gaztelaniaz egin ahal izango da.

Jasotako lan guztiek posta elektronikoz jaso izanaren baieztapena izango dute. Jasotako informazioa osatu gabe badago, pertsonari jakinaraziko zaio, gehienez ere 48 orduko epean zuzen dezan.

ENTREGA-EPEA

2021eko abenduaren 17tik urtarrilaren 10era, biak barne.

Urtarrilaren 10ean, igandea, 23:59an itxiko da proiektuak onartzeko epea. Epez kanpo geratzen diren eskaerak ez dira onartuko.

ERAKUSKETA

Erakusketa bat egingo da 2021eko martxotik aurrera aurkeztutako obrekin, eta, behar izanez gero, lanen aukeraketa bat ezarriko da, epaimahaiak obren kalitatea aintzat hartuta eta erakusketa-espazio erabilgarriaren arabera.

Era berean, erakusketa-gune birtual bat irekiko da **Gasteizko Udalaren** webgunean (www.vitoria-la), eta, hala behar izanez gero, lanak hautatuko dira, kalitatea kontuan hartuta.

SARIAK

Lau sari emango dira.

Sari bakoitzak barne hartzen du:

- 200 euroko saria.
- 200 euroko beka bat obra ekoizpenerako.
- Prestakuntza-programa batean eta banakako erakusketa batean parte hartzea 2021eko martxotik ekainera bitartean. Erakusketak **ARTgia Sorgune & Aretoan** egingo dira (José Lejarreta kalea 41-behea, 0°002, Vitoria-Gasteiz, Araba).

GAUZATZE EPEA

EmART 2.0 programak sei hilabeteko iraupena izango du. 2021eko urtarriletik ekainera arte hain justu. Denboraldi horretan, prestakuntza saioak, bilerak, erakusketa kolektiboa eta dagozkion banakako erakusketak egingo dira.

EPAIMAHAIA

ARTgia Sorgune & Aretoa arte galeriak izendatuko du.

Epaimahaia arte, kultur bitartekaritza zein kudeaketa arloko eta arte-kritikako esparruko profesionalak osatuko dute.

Epaimahai honek aurkeztutako lanen originaltasuna, kalitate artistikoa, berrikuntza eta teknika, zein hautagai diren beste proiektuen arteko fusio edo hibridaziorako ematen duten aukera baloratuko ditu.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Honako balorazio-irizpideen arabera puntuazio altuena lortzen duten eskatzaileak izango dira bekaren onuradun:

- Proiektuaren izaera berritzailea (% 30)
- Proiektuaren interes artistikoa eta soziala (% 20)
- Emakumearen ahalduntzeari eta pentsamendu kritikoari buruzko ildo kontzeptuala (% 20)
- Beste proiektuekin uztartzeko edo hibridatzeko aukera (% 15)
- Euskararen erabilera komunikazio-hizkuntza gisa (% 10)
- Eskatzailearen jarduera (% 5)

EPAIA

Urtarrilaren bigarren hamabostaldian argitaratuko da **ARTgia Sorgune & Aretoaren** webgunean (www.artgia.com) eta hautatutako artistei banan-banan jakinaraziko zaie.

Epaimahaiak deialdia hutsik utz dezake. Era berean, haren erabakia apelaezina izango da.

ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ordainketa bi zatitan egingo da:

- 200 euro, programan parte-hartzea onartzerakoan.
- 200 euro, ekoizpen-gastuetarako beka gisa, banakako erakusketa egin eta ekoiztu eta azaldutako proiektuaren memoria entregatu ondoren.

Ordainketa faktura aurkeztu ondoren egingo da, dagozkion zerga-atxikipean erantsita, banku-kontura transferentzia bidez gauzatu.

ARTgia Sorgune & Aretoa-ren KONPROMISOAK

ARTgia Sorgune & Aretoa:

- Oinarri hauetan ezarritakoa betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Proiektuak behar bezala garatzeko behar den laguntza emango du.

ONURADUNAREN / PARTE-HARTZAILEAREN KONPROMISOAK

- Onuradunak alde batetik bere proiektua gauzatzearen konpromisoa hartzen du, **ARTgia Sorgune & Aretoa**arekin adostutako lan-egutegian aurreikusitako epeetan, eta bestetik, proiektua amaitzean, justifikazio-memoria bat entregatzearena (programan parte-hartzea, gauzatzea eta erakustea).
- Aurkeztutako obrek originalak eta argitaragabeak izan behar dute, eta **ARTgia Sorgune & Aretoa**aren esku geratuko dira programak irauten duen bitartean, 2021eko ekainera arte, egun hori barne. Obra erabiltzeko zein erreproduzitzeko eskubideak beretzat gordetzen ditu, egilearen baimenarekin eta betiere egilearen izen-abizenak aipatuz.
- Onuradunak **ARTgia Sorgune & Aretoa**aren instalazioak eta materialak egokiro erabiltzeko konpromisoa hartzen du.
- Onuradunak **ARTgia Sorgune & Areto**ko arauak bete beharko ditu, bere ordutegietara eta lan-dinamiketara egokituz, gizalegezko portaerari eutsiz eta instalazio eta espazio amankomunak errespetatuz. Zentzuaren aldeko alegatua, hain zuzen. Erabat debekatuta dago komunitatearen osasunaren aurka doan edozein lan egitea, bai eta lankideekin eta bizilagunekin elkarbizitza normala eragozten duena ere.
- Onuradunak **ARTgia sorgune & Areto**arekin adostuko du komunikazio-linea (online eta offline).

EZ-BETETZEAK

Oinarri hauetan ezarritakoa ez betetzeak bekaren etena ekar dezake, eta epaimahaiak hala erabakitzen badu, laguntza itzultzea.

Antolakundeak ahalmena du oinarrietan aurreikusi gabeko edozein gorabehera ebazteko. Eta, beraz, oinarri hauetan aipatzen ez diren aldaketak egiteko edo ekimenak

hartzeko eskubidea gordetzen du **ARTgia Sorgune & Aretoak**, betiere programaren eta partaideen onurarako izanik.

OHARRAK

Lehiaketari edo oinarriei buruzko edozein kontsulta helbide elektroniko honetara bidali daiteke: **artgiada@gmail.com**, Gaia: **EmART DUDA 20-21**.

EMart 2.0ren antolatzaileek baliozkotuko dituzte obrak, eta hainbat arrazoiengatik programaren espirituarekin bat ez datozen obrak, besteak beste, eduki iraingarriak baleude medio, ez baloratzeko eskubidea gordetzen du.